



### Batzar Orokorra

Atzo burutu zen ikastolako Urteko Batzarra. Beste gai batzuen artean aurreko ikasturteko emaitzak eta ikasturte honetako aurrekontu aurkeztu ziren, eta erronka nagusien berri eman zen. Aurreko ikasturtearen balorazioaren berri ere jaso genuen. Hemen dituzue bozkaturako erabakien emaitzak.



### Liburu-bilketa

Liburu andana ekarri diguzue zuen etxetatik Ategorrietako eta Soroako liburufergiak hornitu ahal izateko, eta eskerrak eman nahi dizkizuegu! Guztion ekarpenei esker osatuko dugu guztiarentzako izango den altxorra!



### San Tomas eguneko postuak

Donostiako Udalak San Tomas eguneko ospakizuna bertan behera uztea erabaki zuen, osasun-egoeraren eraginez. Gure ikastolan guraso eta ikasleak ari zireten egun horretarako ikastolako postuak prestatzen, eta eskerrak eman nahi dizkizuegu egindako lan guztiagatik! Aurten egin ezin izan duzuen arren, zuen lanak datorren urteerako balioko du zuri!



### LHko gabon-bxartelak

Etxekoentzako Gabon-bxartelak egin ditugu LH 3tik 6ra ikasleek azken egunotan. Marrakiz eta kopla ederrez apaindu ditugu bxartelak, eta izugarritzko lan politak sortu ditugu. Hemen dituzue egindako lanen artean aukeraturako batzuk eta horien egileak.



### LH4koak Ordizian

Pasa den astezkenean, LH4koak Ordizira joan ginen egun pasa. Primeran pasa genuen eguna D 'elikatuz-ekoekin elikagaien jatorria lantzen, azokan erosketak egiten eta frontain jolasten. Egun bikaina pasa genuen!



### LH5ekoak Ulian

Aspaldiko partez atzoko egueraldi ona aprobetxatuz, LH 5. mailakoak Ullara joan ginen goiz pasa. Ederki pasatu genuen naturaz gozatzen!



### LH6koen bertso-saioa

Aurten ere bertsoarako plaza bihurtu dugu gure frontoia, segurtasun-neurri guztiak errespetatuz. Hiruhaileko honetan buru-belarri aritu gara LH6ko ikasleek bertso-lantza lantzen, eta bertso-saio bikainez gozatzeo aukeraz izan dute beren gurasoek. Zorionak bertsolari biki guztiei!



### Eman bozka gure bideo tutorialei!

Bagera Eikarteak antolatutako Bideo Tutorialen Lehiaketan parte hartu dugu DBH 2ko ikasleek! Izan ere, asko dugu irakasteko ikasleek, eta hala erakutsi nahi izan dugu. Euskararen Egunean egin genuen geletan bideo hauen emanakdia, eta orain Bageraren webgunean ikusleen saria bozkatzeko aukerarik ere bada. Eman zuen bozka gure bideoei!



### Herri Merezimenduaren Domina

Donostiako Herritarren Merezimenduaren Domina jasotzeko hautagaien artean izendatu dute Zurriola Antzerki Eskola, antzerki mundua bultzatu, antzerkiarekiko zaletasuna zabaltu eta euskarazko edukia indartzen egindako lanagatik! Zorionak beroenak Antzerki Eskolako kide guztioi!



### OHARRAK / AGENDA:

- HH, LH, DBH eta BATXI: Abenduak 20, festa-eguna. Baserritarrez etortzeko deia.
- LH1-2-3: 1. ebaluazioko txostenak posta elektronikoz bidalko dira. Abenduak 20.
- LH4-5-6: 1. ebaluazioko txostenak Alexian ikusgai. Abenduak 20.
- DBH1-3: 1. ebaluazioko errekupezioetako ebaluazio-txostenak Alexian ikusgai. Abenduak 20.
- DBH2-4: 1. ebaluazioko errekupezioak. Urtarrilak 10-13.
- DBH2: Eski-irteera otsailean. Zirkularra eta izen-ematea.
- BATXI2: Abenduak 20. Zirkularra.
- JANGELA: Urtarrileko menua.
- Eskola kirola: 8. jardunaldia. A eta B.
- Gabon hauetan, berdintasunean jolastu: Dekalogoak.
- Haurtxokoa & Gaztelekuak: Abenduko egitaraua.

